



**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prentsa oharra:
Apirilak 1eko greba balorazioa

Hezkuntza Publikoko irakasleek greban jarraitzen dute

Greba zikloaren 8. grebak jarraipen zabala izaten jarraitzen du

Pasa den asteko asteleheneko mahai negoziatzailearen ondoren, **Hezkuntza Sailak aukera izan du negoziazioarekin aurrera egiteko, baina ez du inongo aurrerapausurik eman.** Ostiralean Hezkuntza Sailburuak egindako prentsaurrekoan iritzi publikoaren aurrean asmo onak erakutsi arren, errealitatea bestelakoa da: ez dituzte sindikatuak deitu negoziatziora, beraz, **ez da negoziatuziorik egon.**

Hezkuntza sailak azken egun hauetan **grebak bertan behera uztea** jarri nahi izan du **negoziaketarako baldintza gisa.** Negoziaketarako prest dagoela ere adierazi du, ez die ordea inolako proposamenik helarazi sindikatuei.

Bestalde, greba hauetan azaleratzen ari diren arazoak eta arazo hauei aurre egiteko eskaerak hezkuntza publikoa eta ikasleen beharrei erantzutearekin zerikusirik ez balute bezala mintzo da. Halabaina, ikasleen behar desberdinei erantzuteko baliabideak gehitzea, enplegua eta hezkuntza taldeak egonkortzea edota plantilak gazteberritzea hezkuntza publikoa indartzea da.

Irakasleek argi utzi dute zein den beraien asmoa eta helburu horrekin borrokan tinko jarraituko dute benetako negoziazioa gauzatu arte.

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak gaur deitutako **grebak jarraipen zabala** izan du, aurreko asteko deialdietan bezala; izan ere, **grebara deitutakoen %75ak babestu du** greba. Grebaren ziklo honetan "Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!" lelopean deitutako mobilizazioan milaka langile ari dira elkartzten eta behin eta berriz salatu dute Hezkuntza Sailaren jarrera. **Nahikoa dela salatzen ari dira behin eta berriz kaleetan eta egoera aldatu ezean bere horretan mantenduko dira.**

Greba dira Jaurlaritza mugiarazten dutenak. Sindikatuok benetako negoziazio erreala burutu nahi dute, hitz eta asmo politetatik harago. **Edukia, zehaztapena eta konprezioa behar du balizko akordioak.**


Zortzigarren greba egun honetan ere, **irakasleok oso mezu argiak** helarazi dizkiote Hezkuntza Sailari:

- 15 urte direla hitzarmena eguneratu gabe; eta aski dela.
- Lan zamak arintzea, plantilak gazteberritzeko plan egokia ezartzea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzak bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela.
- Ez badago aldarrikapen hauekiko erantzunik grebetan jarraitzeko indarrekin daudela.

Beraz, **Hezkuntza Sailari eduki, zehaztapen eta konprezioak dituzten mahaiak deitzeko exijitzen diote.** Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitzea eta lan baldintzak hobetzea eta eskola publikoa baliabideez hornitzea.

Bihar ere greba eguna da; eta **Gasteizen mobilizatuko dira irakasleak.** Goizeko 11.30etan hasiko da manifestazioa Europa jauregiaren aurrean eta Lakuan amaitu.





Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.
Decididas aquí y ahora.

Nota de prensa:
Valoración de la huelga del 1 de abril

El profesorado de la enseñanza pública vasca sigue en huelga

La octava huelga continua teniendo un amplio seguimiento

Tras la mesa negociadora del lunes de la semana pasada, **el Departamento de Educación ha tenido la oportunidad de avanzar en la negociación, pero no ha dado ningún paso adelante.** Pese a las buenas intenciones mostradas ante la opinión pública en la rueda de prensa celebrada el viernes por la Consejera de Educación, la realidad es otra: no se ha convocado a los sindicatos a ninguna negociación. Por tanto **no ha habido negociación.**

El departamento de Educación ha querido poner en estos últimos días como condición para la negociación la desconvocatoria de las huelgas. También ha dicho estar abierto a la negociación, pero no ha trasladado ninguna propuesta a los sindicatos.

Por otra parte, ha querido hacer ver que los problemas que estas huelgas están dejando en evidencia y las demandas para afrontarlas no tienen nada que ver con la mejora de la educación pública y de las necesidades del alumnado. Sin embargo, aumentar los recursos para atender las diferentes necesidades del alumnado, estabilizar el empleo y los equipos educativos o rejuvenecer las plantillas es reforzar la educación pública.

El profesorado ha dejado claro cuál es su intención y seguirá luchando con ese objetivo hasta que se materialice una negociación real.

Al igual que en las convocatorias de la semana pasada de los sindicatos STEILAS, LAB, ELA y CCOO, **la huelga convocada hoy ha tenido un amplio seguimiento, ya que ha sido apoyada por el 75% de los convocados** a la huelga. La movilización convocada en este ciclo de huelga bajo el lema "Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!" reúne a miles de trabajadores y trabajadoras que han denunciado reiteradamente la actitud del Departamento de Educación. **Denuncian en las calles que ¡ya basta! y si la situación no cambia se mantendrán.**

Las huelgas son lo que mueven al Gobierno. Los sindicatos quieren llevar a cabo una negociación real, más allá de palabras y propósitos bonitos. **El posible acuerdo requiere contenido y concreción.**

También en esta octava jornada de huelga, **los profesores han trasladado mensajes muy claros** al Departamento de Educación:

- 15 años sin actualizar el acuerdo laboral. ¡Ya basta!
- Aliviar las cargas laborales, establecer un plan adecuado para rejuvenecer las plantillas, consolidar y garantizar el empleo público, recuperar el poder adquisitivo. Es hora de proponer medidas para garantizar tanto la salud laboral como el euskara y la coeducación.
- Si no hay respuesta a estas reivindicaciones tenemos fuerza para seguir en huelga.

Por tanto, **exigen al Departamento de Educación que convoque mesas con contenido y concreción.** Es imprescindible aumentar la inversión y mejorar las condiciones laborales y dotar de recursos a la escuela pública si se quiere reforzar la educación pública.

Mañana también es jornada de huelga; el personal docente se movilizará en Gasteiz. La manifestación empezará a las 11.30 desde el Palacio Europa y finalizará en Lakua.

